

# Nafarkaria

Nafarroako Gehigarri Berezia / Ostirala, 1992ko otsailak 14

## Arturo Kanpion: 20 urte

Bi hormetara



JOSETXO AZKONA

Nafarroako euskaltegirik zaharrenak hogeitau urte bete ditu aurten, eta lagun talde bezala hasi zena euskararendako funtsezko gune bihurtu da denboraren poderioz. Hogeitau urte hauetan jende ospetsu franko jarri da bere aulkietan, baina garrantzitsuena, dudarik gabe, sortu duen euskalzalegoa izan da, Nafarroan aritu izan diren beste euskaltegi guztiekin batera.

Lana somatzen hasia dute, euskararekiko kontzientzian jauzi garrantzitsua izan baita hogeikada honetan, baina kezka haruntzago doaz orain. Hain zuzen ere, euskaltegitik kanpo ere euskararako baliabideak eskeintzea da helburua, ikasitakoa ez galtzeko.

Ez dira, baina, errezak konponbideak, baina hortan ari dira, Iruñeko euskararen histori berria idazten.

### Barnean

### EUSKARA




Euskal kulturari buruzko mahaingurua Iruñean /VI-V

### LEHIAKETAK



Iazko Iruñeko Hiria oraindik epaimahairik gabe /IV



**E**uskal Herria bada, Nafarroa ez da Euskadi', 'Baina zuhurki pentsatuz, zer eskeini diezaioke Euskadik Nafarroari batasunaren truke? Deus gutxi. Horretarako hobeki dago Nafarroa bakarrik', 'Abertzale nafarrek berek esan bezate gauzak nola egin eta zer esan'... gisakoak irakurri ahal izan ditugu azken bolada honetan, hiru sententziak beste hainbeste kazetarik idatziak. Hitzez-hitz baizik ez ditut jaso eta, nahiz haietatik tiraka eginez gero nahi bezainbeste artikulua eta gogoeta egin litekeen bakoitzaren gainean, nire asmoa bestelakoa da ordea: itsu-mustuan gabiltzala, giltza zerrailan sartzen asmatzen ez dugula esatea, alegia.

Ia hamazazpi urte paseak dira Diktadorea bere ohatzean hil zenetik, eta harrez gero, jomuga bideragarriak baino norabide malkartsuak jo ditu euskal politikagintzak Nafarroan. Euskadi, ideia utopikotzat hartu eta hartara egokitu beharrean, gauzatutzat balitz bezala eduki dugu nafar abertzaleok. Baina, ezinbestean, ezin esan ere Euskadirik ez denik, bai bait dira euskal lurralde batzuk beren bide historiko eta politikoa urratu dutenak.

Izan eta ez izatearen ondorio zuzena, gure eskizofrenia politikoa: bagara eta ez gara, izan nahian eta ezinean bizi garelako, zeri eta nola heldu ez dakigula.

Nafarroako indar politikoen korrelazioak, orain lehen bezala, minorian jokatzerara behartu du euskal mugimendu politikoa. Minoria politikoa jardun beharrak, bestalde, zuhurtziaz aritzearen eskakizuna dakar; kanpoko eta barruko behaztopoak aisekiago gaintzeko eta, mugimendu politikoaen sostengu den minoria horixe urriago bihurtu ez dadin.

Urteak pasa ahala, inoiz baino sakonagoa da bi komunitateen arteko tartea eta, nabarmen ere urriago da, gainera, euskal gutxiengo politikoa nafarra.

Bi fenomeno horien zergatiak banakatzeko orduan, arrazoi ugari direla, hiru azaleratuko nituzke abertzalegoaren barruko jardunari lotuak. Bat, nafar abertzaleek elkarren arteko estrategia jakin bat ez burutu izana, Nafarroarentzat Euskadikoek ere burutu ez duten neurri berean. Bi, euskal politikaren lerro esentzialista eta pragmatikoen elkarri bizkarra eman eta mingo topagunetik eraiki ez izateagatik. Eta hiru, borroka militarrek herriaren borroka politikoaen lekua hartzeagatik; euskal arazoa politikoa baino militar-poliziala aldaraziz.

Minorian aritzea xamurra ez bada ere, askoz ere mingarriagoa da haren kalitate eta kantitatea gainbehera doala ikustea, frustrazioa dakarrelako derrigorrez. Hala gabiltza Nafarroan aspalditik eta, beraz, ez da harrizkoa haseran jaso ditudan lehen bi sententziak batzuk burutu ahal izana. Hirugarrenari dagokionez, nire aldetik esan beharrekoak esanak ditut honez gero. Segida izanen al dituzte!



## Gure Aukerak

### IKASTAROAK



**Dantza afrikaniarrak** ikasi nahi dituenak ikastaro bat burutuko da otsailak 17a geroztik eta martxoaren 5a bitartean Nafar Kirol Taldeak Jarautan duen aretoan. Informazioa eta izenematea han bertan egiten dira.

### ZINEMA



**'Mas alla del Arco Iris'** ('Ortzadarretik harantzago') filma dago ikusgai Iruñeko Golem zinema aretoan. Sitgeseko zinemaldiaren zenbait sari poltsikoan, medium baten esperientziak laburbiltzen ditu maisuki, tentsio dezente duen filme batean. Bertan ere 'El Rey Pescador' ('Errege arrantzalea') filma dago ikusgai, tragedia pertsonal batean oinarritutakoa. Filma ederki egindakoa, farra zein tristezia eta baita malkoak ere nahasten dira pelikula osoan zehar. Historia hunkigarri batekin topo egiteko parada ederra.

**'Trekking-a Nepalean'** izendapean diapositiba emanaldia izanen da hurrengo ostirala, otsailak 14, arratsaldeko zortzietan Nafar Kirol Taldeak duen aretoan (Jarauta 68). Javier Bergasak egiten ditu diapositiben azalpenak.

**Ileapaintzailearen senarra'** izeneko filma ikusgai izanen da Tafallan heldu den ostegunean, hilak 20, Cinema Español zinematokian. Pelikula honek 1991ko Barcelonako jaialdiaren kritikaren saria jaso zuen.

### ERRAN DUTE

**PSOErekin ituna beharrezkoa da Nafarroarako**

**Juan Cruz Alli**  
Nafarroako presidentea

**«Gizakumeok ez gara gizalegekoak izan txerriarekin»**

**Caius Apicius**  
Gastronomian aditua

**«Bidasoa ez da, handien artean, gurekin galduko duen bakarra»**

**Iuri Nesterov**  
Eskubaloijokalaria

**«Udala eta kon-  
truktoreak gabez,  
ezkutuan eta abisorik gabe  
etorri dira»**

**Jesus Almingol**  
San Francisco Plazako batzordetakoa

# Erroibarretik gora

Asteburu honetarako antolatutako ibilaldiak eguraldiaren baimena beharko du izan, azken egunotan botatako lurak itxi ez baino zenbait bideberri egoera arriskutsuan utzia bait zituen. Hala ere, inork ez dezala espero eguzkia ikusteko parada izatea, eta inor ez dadila kezka horregatik. zonaldea elurra eta euriarekin bait da gozatzekoa.

Egia esatera, hemen sartu ditugun herri bakoitzak merezi du lasai asko egun osoa, inguru zoragarrian ez ezik kale eta biztanleak aberasta oso bait dira, hitzaren zentzu zabalenean.

Iruñetik oso urrun, Nafarroa Beherekoarekin harreman handien lekukoak, abeltzantza, kontrabandoa, baso ezkutuenak, inguru misteriotsu eta gordeta da bisitari askorandako.

Mezkiritzen aipatzekoak dira etxeak, haniak oso bait dira, behialako abeltzainen garrantzia eta aberastunaren lekukoak. Bertatik ere ibilbide ederrak egin daitezke kobazulo frankotara.

Aurizberrik urte aunitzetan lortu du Nafarroako herri politenaren 'titulua' etxeak ederki gordeta eta oso



ikusgarriak bait dira, bideberriaren aldamenetan ilera zuzenean.

Auritzek ere oso ezaguna da, astialdiarako zentru bihurtu delako, baina Orreaga da bisitariarendako bereziki erakargarria, Colegiataren

imurruen barruan gordetzen diren makina pasadizo eta kondairekin.

Luzaidek ere merezi du Ibañeta mendateko errebolta bihurriak pasatzea, bere lau auzoa eta bere karrika garaiak bisitatzeko.

### ANTZERKIA




**Sikulu konpainia afrikarrak** 'Sikulu, gudaria' izeneko antzerki eta dantza ikuskaria eskeinitu du Gaiarre Antzokian otsailak 18 eta 19an arratsaldeko zortzietatik aurrera.

Zulu, sotho eta xhoa etniako dantzariak osatzen dute talde hegoafrikarra hau. Zuriak Hegoafrikan egin dituzten lapurketari buruzko ikuskari berezi honek arrakasta handia lortu du mundu osoan. Izan ere adituen ustez Afrikan egin den musikal hoberena da.

**La Tropera** antzerki talde nafarrak Edgar Allan Poen 'Israfel' ipuian oinarrituriko antzezlan eskeiniko du gaur Gaiarre Antzokion. La Traperakoek bere sorterrian, Azkoien, estreinatu zuten lan hau Gabonetan eta arrakasta handia lortu zuten.

### ASTEKO PERTSONAIAK

#### Jose Luis Ollo



Marraskigilea

Hogeitabost urteko iruinseme honek irabazi berri du aurtengo Sanferminak iragarriko dituen kartelarako saria, sainduaren irudia eta eguzkia azpimarratzen duen marrazki «sinple» batekin, epaimahaiaren hitzetan. Hain zuzen ere, kartelaren izenekin —'Al sol' ('Eguzkipean')— laburbildu nahi izan du egileak nahi zuen ideia. Bere hitzetan, San Fermin ez zen orain arte atera karteletan, «eta lehendabiziko irudia hori izanen zela erabaki nuen. Atzetik, eguzkia, festak uda garaian izaten direlako, eta kanpotik etorriko direnei begira». Ollo kazetaria da, eta argazkilaria ere ibili da behin baino gehiagotan. Azken honetan jasotako esperientzia nabarmendu da kartelean, epaimahikideen ustetan, «oso garbia, naif samarra, oso sinplea eta izugarri originala delako».

#### Julian Retegi



Pilotaria

Eratsundarrak zer esanik eman du Asteotan ez hainbeste frontoietan egindako lanagatik —ohizkoa duen gisan— nola txuriz jantzi gabe sortutako zalapartagatik. Joan den larunbatean Iruñeko Labrit pilotalekuan istilu gogorrek izan ziren Julian Retegi eta Jon Trueba 'El Diario Vasco' egunkari donostiarreko kazetariaren artean. Kritika txarrak minduta edo, ertasundarrak lepotik heldu zion kazetariari, eta hori baino zertxobai gehiago ere izan omen zen bien artean, gainetik kendu behar izan zutelako bertakoek. Eratsundararen jarrerak harridura sortu du pilota munduan, ez bait da istiluak alferrik sortzen dituen horietakoa. Garbi dago neurritz kanpoko haserria erakutsi zuela larunbatean eta kaltea baino ez diola ekarriko, baina neurri gogorrek ere ez dute giroa gozoagotuko.

#### Iñaki Alfaro



Kantautorea

A beslari gazte honek bere lehenen-Ago diska kaleratu du aste honetan 'Adibidez' izenburuarekin. Arion disketxearekin grabaturiko plastikokoak zortzi abesti biltzen ditu eta bertan Iñaki Alfaro berak jarri dio diska lan guztiei eta abesti gehienak Patxi Labordak idatzi ditu. 'Euzkadi topikala', 'Mintzoan', 'Aritzaundi', 'Itzularen ezker', 'Hau egia' 'Bel-tzan Blues', 'Batzutan ixiltzen' eta 'Ez ahazteko abestia' konposaketak lasai eta patsada ederrean entuteko eginak dira. Diska grabatu ahal izateko Rakel Burgete (ahotsa), Ino Hernandez (Kitarra elektrikoa), Mikel Morote (baxu elektrikoa) eta Jabier Asinen (sintetizadorea) laguntza izan du egile berri honek. Beste beslari berri bat, beraz, Nafarroako euskal musikarako, giroa nolabait mugitzen lagundu eta animatuko dutena, dudarik gabe.

**'Milenius'** izeneko lana taularatuko da heldu den astelehenean, hilak 17, Iruñeko Gazteriaren Etxean. Emanaldia gabeko 22.30etan izanen da, 'Producciones Teatrales marmol' taldearen eskutik. Sarrera dohainik izanen da.

### KIROLA



**Ori-Abodira** irtenaldia antolatu du Sakanako Mendigoizaleak taldeak heldu den iganderako, hilak 16. Irteera goizeko seietan izanen da Olaztitik.

### ERAKUSKETAK



**Robert Capa** argazkilaria hungariarraren erakusketa ikusgai dago gaurdanik Iruñeko udalaren Hiritar Eragintza saileko erakustokian, Zapateria kalean. Inoizko argazkilaririk hoberenetakoa eta famatuenetakoa ederki ezaguna egin zuen Gerra Zibilaren garaiko argazkia, errepublikar aldeko miliziano bati ateratakoa. Horretaz gainera ere Bigarren Munduko gerran aritu zen argazkilaria, eta Indochinan zegoela, 1954an, vietminh mina bat zapaldu eta bertan hil zen, berrogei urte zituela.

**Rodolfo Cardiel** Erriberiko pintoraren lanak Lankide Aurrezki Kutxak Iruñeko Sarasate Etorbidean duen aretoan ikusgai daude otsailak 14tik martxoaren 1a arte.

**'Euskararen iraupena Nafarroako gaztelanian'** izeneko erakusketa atzotik Nafarroako Museoan dago ikusgai.

### ADI !

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Astelehenean 22.00etatik 23.00etara... Gaueko irrintzia musika saioa.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 13.00etatik 13.45etara... Informazio Saioa Baztan, Male-rreka eta Bortzirietako informazioa. Elizondo, Bera eta Lesaka egunero.

#### HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9

Asteartean FMn 22.00etatik 23.00etara... Gautxori irratsaio musikala. Narrazioak.

#### RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... Zuri eta Beltz Elkarriketak, erreportaiak, musika.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.



## Euskarazko lanak ilunpean

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Iruñeko Udalaren sariak lau sailetan daude banatuta euskarazkoetan: narrazio laburra, olerkia, komikia eta bertso-papera. Azken modalitate honen bigarren urtea da honakoa, eta lehiaketa oinarrietan agertzen den bezala, erderazkoekin batera banatu behar izan ziren sariak, San Saturnino egunean, hau da, azaroaren akaberan.

Orduan soilik erderazko sariak banatu ziren, euskarazko epaimahaia oraindik osatzeke bait zegoen eta dago. Hain zuzen ere, epaimahiaren beraren osaketa izan da atzerapen honen arrazoa, eta aurrerago ere lehiaketak berak kolokan jar litza-keena.

Epaimahaikideen izenak Euskara Zerbitzuak proposatu ohi ditu orain arte, eta aurtengo edizioa heldu baino lehen ez da inoiz aparteko arazorik izan. Saritutako komikiek inaz izan ziren gorabeherak, baina, giroa nolabait mikaztu dute udala eta bereziki Hiritar Eragintza arloan lehiaketen inguruan, eta Alfredo Jaime alkateak ez omen ditu gustoko izan aurtengorako proposatutako

epaimahaikide zenbaitzu. Lehendabiziko proposamenei uko egin ondoren, ez da beste alternatibarik aurkitu, eta beste irtenbideren baten zain daude orain Hiritar Eragintzan, ardurak norena behar duen izan oraindik

oso garbi ez badago ere.

Jarrera honen inguruan ere, zeresan franko izan du iazko lehiaketen saritutako komikiak debekatzeko aginduak, kanpora begira eman zen

aurketutako lanak eta sarien izenei erreparatu gero, bai komiki sailean nola olerkian eta narrazio laburrean urte guzti hauetan maila polita erakutsi dela azpimarratzeko da.

Aingeru Epaltza, Joakin Balentzia, Isidro Rekarte, Antton Erkizia, Juanjo Olasagarre eta beste hainbeste izen ezagunak agertzen dira upuin eta bertso lehiaketen, eta Pablo Jose Aristorena bertsolari hernaniarra izan zen iazko bertso lehiaketako irabazlea.

Udalak ez du inoiz saritutako lanak argitaratzeko ardura bere gain hartu, baina beren kalitate handiaren lekuko, zenbait argitaletxeri esker askok ikusia dute argia.

Dena den, sariren bat eztabaidatua, ospetsua, kalitate handikoa eta zeresanik eman duena izan bada, hori komiki lehiaketa izan da. Lanen kopuruei dagokienez oparoena, goi mailako izenak izan ditu irabazle, Asisko Urmeneta edota Patxi Huarte NAFARKARIAKO kolaboratzaileak tartean. Gogoratu behar lehiaketa Nafarroan bizi diren artistarendako dagoela egina.

Iñaki Azkona udalaren Euskara Teknikariak aditzera eman duenez, udalaren komiki lehiaketa honek «balio izan du komikia eta euskara lehendabiziz batzeko. Bi mundu lotu dira bertan, hauek bait ziren administrazioetik zetozen lehendabiziko lehiaketak, eta hemen egiten ziren euskarazko estreinekoak ere bazire-lako».

Hori dela eta, haserre nabaria da lanak aurkeztu dituzten zenbait egileren artean, eta oraindik publikoki egin ez badute ere, protestak egitearen aldekoak agertu dira dagoeneko. Gogoratu behar, lanak Udalaren eskuan dauden bitartean ezin direla beste lehiaketara aurkeztu, honek sortzen dituen kalte guztiak.



ixtura deskoordinazioa izan bait zen. Horrelako egoerak errepika ez daitezkeen izan daitezke udalaren buruzagiek oraingoan hartutako erabakiaren arrazoa.

NAFARKARIAK ahaleginak egin ditu egunotan Hiritar Eragintza arloko zuzendaria den

Jose Javier Villafrancarekin hitz egin ahal izateko, baina alferrikakoak izan dira.

Esan behar da ere, eta oraindik kopuru zehatzak publikoak egin ez badira ere, aurtengorako lanek zazpi urte hauetan aurkeztu direnen markak hautsi dituztela, nabarmen gainera.

Historia apurra egitearren, iragana oparoa du Iruñeko lehiaketak. Bertan

## Komikiekiko tema ote?

P.U. / IRUNEA

rran zioenez, saritutako komikien zenbait pasarte «biolentoak» ziren eta ez zetozen bat «eduki behar litzuten helburu didaktikoekin». Horretan oinarrituz geldiarazi zen bere zabalpena eta komikiak, egun, Udaltzaingoaren soto batean daude pilatuta.


Erabakiaren atzean, presioak izan zirela jakin ahal zen beranduago, Maribel Beriain Hiritar Eragintza ordeko zinegotziak, ez ofizialki, komikiak «gustokoak zituela» adierazi bait zuen.

Erabakia behin ezagututa haserre eta kezka azaldu zuten orduko epaimahaiek hartutako bidea zela eta. Aingeru Epaltzak adierazi zuenez, komikien edukia «ez zen bereziki deigarria, marginala bai, baina komikietan ohizkoak diren bezalaxe-koa».

Asisko Urmeneta marrazkilaria ere kezkatuta agertu zen orduan, «horrelako erabakiek dagoeneko ez bait digute harridura sortarazten, eta hori arriskutsua da, horrelako jauntxerietara ohitzen ari garela esan nahi duelako».

Honekin batera, eta euskarazko komikiei buruz dagoen joera kutsatuko bailitzan, Nafarroako Gobernuaren 1990eko lehiaketen saritutako lanak oraindik ez dira banatu, iazko urritik inprimatuta baldin badaude ere. Hain zuzen ere orduan jaso zuten komunikabide guztiak komikiak prentsaurrean aurkeztuko zireneko oharra, baina gaur arte ez da horrelakorik izan.

Egon ere, komikiak Nafarroako Gobernuaren Tafalla kaleko biltegian daude, ilunpean, banatzeko agindua zain.



Iazko komiki lehiaketan 'helduei zuzendutako komiki hobere-na' saria jaso zuen lanaren irudietako bat. Egilea, Fernando Muñoz Vizcaino, eta izenburua: 'Orwellen testu batean oinarrituta'. Egun, Iruñeko udaltzaingoren soto batean dago.

**L**anak urriaren akaberan entregatu baziren ere, 'Iruña Hiria' euskarazko lehiaketeko epaimahaia oraindik osatu gabe dago. Bertso-papera, ipuinak, olerkiak eta komikiak, beraz, udaleko agintarien erabakiaren zain, aferaren arrazoa epaimahai gustokoa ez dela aurkitu izan bait da. Euskarazko komiki arloan hau da azken bi urteotan kaleratu gabe gelditzen den hirugarren lehiaketa, aurreko lehiaketetan saritutakoak udalak berak bahitu bait zituen, eta Nafarroako Gobernuak iazko lehiaketako ere argia ikusi gabe dirautelako, biltegi batean, zain.

Azken bi urteotan, Nafarroan egiten diren euskarazko komiki lehiaketek ez dute amaiera onik izan, eta arrazoi bat dela bestea dela, hiru lehiaketakoak ilunpean daude oraindik: Iruñeko Udalak antolatzen duen lehiaketaren azken bi urteko edizioetakoak, eta Nafarroako Gobernuaren 1990eko lehiaketakoak. Orduarte inolako arazorik gabe burutu baziren ere, Udalaren euskarazko lehiaketen orain dela bi urteko edizioan sortu ziren lehendabiziko aferak Udalaren beraren jarrera zela eta. Izan ere, saritutako zenbait komiki ez zion 'egokia' eritzi Udaleko gobernu kontseiluak eta beren banaketa debekatzeko erabaki zuten urria aldera. Udalak publikoa egin zuen oha-





**A**rturo Kanpion Iruñeko euskaltegiak bere hogeigarren urteurrena ospatzeko antolatu duen egitarauaren barruan, euskal kulturari buruzko mahaingurua izan zen joan den asteko ostegunean Zaldiko Maldiko elkartearen. Patziku Perurena, Juanjo Olasagarre eta Josetxo Susperregi solaskide, eta ele aunitz eta interesgarriak, gai beraren ingurukoak. Interesgarria izan zelakoan, hona hemen bertan botatakoaren laburpena.

## Euskal kulturari buruzko gogoetak

MATTIN KAPITANSORO / IRUÑA

**GALDERA.**— Nolako izan da zuen esperientzia euskal kulturaren barruan eta zein da zure iritzia gaurko egoerari buruz?

**JUANJO OLASAGARRE.**— Orain Euskal Herrian dagoen kultura ez da nik bizi izan dudana. Arbizun, adibidez, ez ginuen somatzen bertso-laririk zegoenik, ezta euskaraz idatz zitekeenik ere. Gu ginen herriko modernoak, eta Led Zeppelin eta Deep Purple entzuten genuen, eta bertso-lariak gorrotatzen genituen. Horrelakoetan, askotan gertatzen da euskal kulturatik ateratzen zarela eta erderaren mundura pasatzen zarela, baina guri ez zitzaigun horrelakorik gertatu. Guk, ordea, ez genion utzi euskarari, mundu horren barruan bizi ginen, eta euskal kulturaren barruan geunden, nere ustez, euskaraz egiten dena euskal kultura delako.

Gure herrian bazen eredu bat, kanpotik inposatu zigitena, hau da, euskalduna=txapela, sudur handia, larru gutxi jotzen duena... Horregatik, hortik ihes egiten saiatzen ginen.

Orduan zer gertatu zen? eredu horrekin ados ez geundenak euskal kulturaren barruan beste eredu bat bilatzen saiatu ginela, eta eredu abertzalean hasi ginen mugitzen. Hor ere oso sutsu bizi zen euskal kulturaren mundua eta orduan konturatu ginen beste gauzak ere bazeudela, eta alfabetazera joan ginen, eta abar.



Mintzaldiaren partaideak eta moderatzailea.

JOXE

Aipatu dudana lehengo eredu horrek mailaz sailkatzen zituen euskaldunak. Lehendabizikoan etxeko jabea zegoen, ezkondu eta seme-alabak zituen. Bigarrenean gu bezalako porreroak eta Deep Purple entzuten genituenak geunden, eta nahi dituzuen perbertsio guztiak zituztenak

ere. Orduan, eredu abertzaleak bi talde horiek —tradizioa eta kanpotik etorritako gauzak— batu zituen, nolabait.

Hala ere, esan behar da abertzale ereduak faltseatu egin duela euskaldunon errealitatea. Eredu horren arabera euskal kultura sinistu behar den zerbait da, baina ez bizi behar den zerbait.

**PATZIKU PERURENA.**— Ni sartu nintzen euskal kulturaren literaturaren bidez. Arrasaten burutu nituen ikasketak, erderaz, eta nerendako euskara ama hizkuntza zen, mundu bat, eta erdera beste bat, ikasketen mundua. Bi munduen arteko erdigunea literaturan ikusi nuen, euskaraz idazten zela ikusi nuenean. Orduan alfabetatu nintzen, eta mundu horretan sartu nintzen.

Juanjok arrazoia du, inguru politizatuak idealizatu egin du euskal kultura, eta nolabait ez dio utzi bizitzeko. Nik askotan ikusten dut, ez nuke folklorismoa esango, baina bai testimonial kutsu handi bat, eta neretzako hori ez da euskalduna. Euskaraz egin behar da bizi, eta horren bidez mundu oso bat deskubritu.

Honek esan du euskaraz egiten den guztia euskal kultura dela, eta nik hori ez nuke sekulan esango. Kultura bakoitzak behar ditu bereiztasun batzuk, eta hori oso lotuta dago inguruarekin, lurraarekin, tradizioarekin.

Euskal poeten % 80k ez du ezagutzen euskal tradizioa, eta gero edozeinek ateratzen du liburu bat euskaraz, baina horrek ez du esan nahi euskal tradizioa ezagutuko duenik.

Horren errua non da? eskoletan, kasu, inon ez bait da irakasten euskal kultura.

**JOSETXO SUSPERREGI.**— Ni baserri giroan jaio nintzen, eta hamasei urtetan Parisera alde egin nuen. Han bederatzi urte eman nituen. Nik euskal kultura baneukan, eta ondoren

gauza asko bizi nituen, eta nahastu nituen.

Hirurogeitazortziko garai fuerteko hori pasatu zenean, askok alde egin zuten Parisetik, Indiara, Afrikara... eta gu mundu osoan zehar ibili ginen urtebetez oso galduta, oso oso. Ondoren hona itzuli ginen, eta ikusi genuen edozer gauza egin zitekeela, eta taberna bat hartu genuen. Hiru edo lau urte egon, eta orduan heldu zitzaidan burua lasaitzeko garaia.

Herrira itzuli nintzen, eta presio soziala handia izanda ere, gauza anitz egiteko aukera bazela ikusi nuen. Hala ere, zaku batean sartu nahi ninduten, eta, Klaro, soilik bost zaku zeuden, eta ni ez nintzen inon ere sartzen. Eta oraindik ere horrela dago egoera.

Euskal kulturaren garai batean, nahiko sakonki bizi dira gauza asko, baina nolabait gastatu egin dira. Orain hor dago galdera: Nondik jo behar dugu? Nik uste dut kultura eboluzioa dela, aldaketa, eta ikasi eta bizi behar da ahalik eta leku gehienetan, ikasketak horiek, gero, aprobe txagarriak bait dira edozer gauzarako. Nik uste dut pertsona guztiak gauza asko lan eta sakondu behar dituztela, horrek eragina izan behar du gero beren izaeran.

**OLASAGARRE.**— Patzikuri esan nahi diot, agian dena ez dela euskal kultura, mundua gero eta zabalagoa delako, baina niri, kasu Deep Purple baliogarria izan zitzaidan bizitzeko, eta ni ez nintzen euskal kulturatik



**S**aiatu gara beste kulturen maila izaten, eta hori zertarako? Kultura gelditua dago, eroria. Agian planteak zitekeen: begira dezagun gure barrura eta egin ditzagun bizitzeko balio dizkigun gauzak.

JUANJO OLASAGARRE



**E**uskaldunok oinarri bat behar dugu, tradizioa, ze, bestela, hori gabe, hutsaren gainean gauzak euskalduntzen baldin baditugu, zarpail lana egiten ari bait gara.

PATZIKU PERURENA





atera. Ez da euskal kultura, baina nirea da. Nik badakit euskal kultura tradizioan oinarritutako gauzak direla, baina uste dut kanpotik etorritako gauzekin nahastu behar dela. Arazoa da kanpotik zer datorren eta nola datorren.

Bestaldetik, esan behar da eredu abertzaleak gaintu egin zuela aurrekoa, txapela eta sudur handikoa. Hortan geratu izan bagina, agian hilda egongo ginen, eta hobe da ero hilda baino.

**PERURENA.**— Agian gaizki espresatu naiz. Ni ez nago kontra kanpotik etortzen diren gauzekin, eta gauzak hartu eta jaso behar dira, dudarik gabe. Baina euskaldunak baldin bagara, lehendabiziz ikasi eta jakin behar dugu hori zer den, eta hori baino, bizi. Bestela, euskaldunok zer gara? Oinarri bat behar dugu, ze, bestela, hori gabe, hutsaren gainean kanpotik etortzen diren gauzak euskaratzen baldin ba ditugu, zarpail lana egiten ari gara. Askotan hartzen dira hor dabilzan sinbolo guztiak, eta, horiei segitzen badiegu euskaldun jatorra, militantea, eta abar izanen gara... baina barrendik hutsa.

**SUSPERREGI.**— Baserri eta herrietako bizimoduetatik hartzen ditugu asko, eta bizi gara asko, oraindik. Baina nik, adibidez, euskal musika, zorionez edo zoritxarrez, oso gutti entzuten dut eta berdin zait. Hemen pasa gara txistutik 'punkera', eta orduan, zer da euskal musika? Neretzat interesgarriagoa da Deep Purple barruan sentitzea eta horrekin bizitzea, beste euskaldun berri askok egiten duena baino, aiton



**E**uskaldunok izorratzen gaituzte alde guztietatik, baina oraindik badugu sasoia, eta izanen dugu gehiago oraindik ere. Arazoa da aurriritzi asko ditugula, eta lehendabizikoa, euskaldunak ez izateko beldurra.

JOSETXO SUSPERREGI

ren beldurra ere bada hori. Badu beldurra ere euskalduna ez izateko.

**OLASAGARRE.**— Patzikuk arrazoiak dauka, ez bada aurretik lantzen euskal kultura, hutsaren gainean ari gara, baina niri, garai batean, esan balidate aukeratzeko: «Edo Deep Purple edo euskal kultura». Nik esango nukeen, «ba, gutxiago euskara eta Deep Purple». Hori ez zitzaidan planteatu, eta nik hartu nuen nirea

erreibindikatu egiten dugu. Hor dago kokka. Bada jende asko ez euskalduntasunik ez abertzaletasunik sentitzen ez duena, eta bere bizitza euskaraz egiten duena. Gutxi gora behera hau [Susperregi] da prototipoa.

**OLASAGARRE.**— Euskaldunen lehengo eredu hori kanpotik etorri zaigun zerbait da. Guk ispilu horretan gure islada ikusi dugu, edo ikustera behartu gaituzte. Nora goazen ez dakit, baina larriena da besteekin parekatze nahi hori. Zergatik egin behar ditugu beste lekuetan egiten diren gauza guztiak? Bestaldetik ere, onartu behar da gauden lekuan egonda ezin dugula besteengandik aparte bizi.

**PERURENA.**— Nik berriro esango dut, badaude gauza asko, ikastolak, euskaltegiak... petaxo mordo badago, baina ez dago tradizioz. Askok pentsatuko dute tradizio hitza txarra dela, edo ez egokia. Eguneroko bizitzan datu mordo sartzen zaizkigu kanpotik, eta nik ez dut azaldu nahi hemen euskaldun purua, baserriarra bezala, klasiko samarra izanda ere. Baina huts bat badago, eta bai, taldeka gabilta, bakarka hor hemek, baina horrek ez dauka eraginik. Nik euskaldun mundua

gauza afektibo bat bezala ikusten dut, gauza pertsonal bat bezala. Horregatik, nahiago dut lau euskaldun zinezko, berrehun mila pariodagile baino.

**OLASAGARRE.**— Eta zer da zinezko euskalduna?

**PERURENA.**— Nik sentitzen dudana bezala ez dut isladarik ikusten gizar-tean. Eta inon ikusten badut, baserri giroan. Tristeia da hori esan beharra,

## A eta borobila

● Gutxitan ikusi ahal dira kanpoko argitan. Bonbila horixkako aire deskribaezin horretan aurkitzen dira gehienbat, tabernetako komunetan, atean edo paretean errotuladore beltzez idatzirik, kontsigna politiko baten ondoan, zakil haundiegi baten azpian, irain gordinez inguratutik, grafifi entsaladaren ezinbesteko osagai bihurturik.

Zailago izaten da kaleetan topatzea. Tarteka punki zaharren baten larruzko zamarran edo ile kizkurreko ekologista baten zakutoan. Gutxi halere. Eta hormetako bakan horiei ez darie pintura freskorik, kolorea erdi galdua izaten dute eta normalean ez da kontsignarik ageri alboan, egileei aski iruditu bait zitzairen. A eta borobila. Neurririk gabeko amets baten atea, konpañero.

A bat borobil baten barnean pintatu duten gehienei ez ieizaiezu galdegin zein ziren Kropotkinen kimerak, zer proposatu zuen Proudhonek, zer hausnartzen zuen Malatesta artzainak Italiako malkarretan edo nolako borrokak izan zituen Bakuninek komunistekin.

Sinbolo hori berea egiten hasi denarentzat A letrak eta borobilak badaukate zera bat, usain gozo bat. A letraren adoratzaille berriak uste du letra hori ez dela inoiz alderdi politikoen zopa hotzean sartuko, zaharrek irrifar egin eta burua mugituko dutela, gazteek eskuak luzatuko diz-

kiotela, egun argiz ez dela kolore ederrik faltako eta gauez alkohola jori zerbitzatuko dela eta izarrak zenbatzen emango dituztela egunsenti arteko orduak.

Badira, bai, bere kabuz eta presaka adoktrinatu direnak ere. Eta ausartak izaten dira. Iruñeko denda bateko pertsianan, konparazio baterako, honako hau idatzi dute A eta borobil baten ondoan: «Etzakela kontsumitu, ebats ezak». Bakuninek irakurriko balu bi belarrondoko emango lizkioke egileari hain gaizki ikasteagatik. Hala ere ez dakit gehiago gustatuko litzaiokeen koktel molotov batez armaturik 'Casa del Pueblo' batean sartu zirenen begirada.

Nora jo ordea mugimenduen esentzia bilatzeko? Ortodoxia jarraitu dutenena ez da exenplurik ederrena. Azken urte hauetan langileei bidaltzen dizkieten gutunetan ez dira zifrak besterik agertzen eta beste sindikatuek bezain zekenak direla erakutsi dute.

Gaurko egunean idazten den A horrek ez du inor zirikatzen eta luzaro iraungo du horretan inork ezabatu gabe, dagoeneko ez bait da inorena. Borobilak A letra zanpatu du puntu beltz bat eratu arte, eta kearen erresuman daude biak lo.



Pello Lizarralde Idazlea



Zaldiko Maldiko lepo lepoa eginda.

JOXE

zaharren ondoan, ea nola mintzatzen den eta zer egiten duen aztertzen ibiltzea...

Ez, naiz, hala ere, euskal musikaren aurkakoa, eta hor badago orain fenomeno bat, Negu Gorriak. Jotzen duten musika arrotza dela? Baliteke. Baina oso onak dira, eta ongi jotzen dute. Horregatik gauza onak egin daitezke, eta horretarako pertsonak eta giroak behar dira. Euskaldunok izorratzen gaituzte alde guztietatik, baina oraindik badugu sasoia, eta izanen dugu oraindik gehiago. Prejuizio asko daukagu, eta lehendabizikoa, euskaldun ez izateko beldurra.

**PERURENA.**— Negu Gorriak taldea

balitz bezala. Arazoa da euskal kultura saiatu dela inguruko kulturen maila kopiatzen. Saiatu gara liburuak argitaratzen, egunkari bat izaten, eta zergatik? Guk, bizitzeko, egunkari bat behar dugu?, liburuak behar ditugu?. Kultura geldituta dago, eroria, igoal igoal. Agian planteatu zitekeen, begira dezagun gure barrura eta egin dezagun bizitzeko balio diguna. Libururik gabe bizi gaitzke.

**PERURENA.**— Baina askotan alderantziz gertatzen da. Zuk hartzen duzu musika hori, eta euskalduntasun baten izenean, euskaldutzen duzu eta sekulan baino harroago sentitzen gara euskaldunak munduko mailan gaudelako. Euskalduntasun hori

baina hala da.

**OLASAGARRE.**— Nik uste dut ez daudela zinezko eta gezurrezko euskaldunak. Ezin dugu karneta eskatzen hasi, zu euskaldun zara eta zu ez. Hemen bizi gara, eta euskaldun hutsak baleude, ez genuke arazo hau izanen. Euskaldun gisa bizitzeko, bai, maitasuna eta afektibitatea behar da euskararekiko, baina baita gorrotoa ere.

Askotan euskaldun berri batekin hasten zara eta kriston ahaleginak egin behar dituzu elkarri ulertzeko, baina neretzat, kriston meritoa dauka pertsona horrek. Hori euskalduna da eta izango da. Beste arazoa da horrela nora goazen galdetzea.

IRUÑA  
NAFARROAKO MUSEOA

Otsailaren  
14etik 29ra  
Erakusketa

Ordutegia:

Asteleheneetik Ostiralera  
Arretsaldeko 5etatik 7etara  
Larunbatetan 10etatik 2etara  
eta 5etatik 7etara  
Igandeetan 11etatik 2etara

EUSKARAREN  
IRAUPENA  
NAFARROAKO  
GAZTELERAN

PERVIVENCIA  
DEL VASCUENCE  
EN EL CASTELLANO  
DE NAVARRA



Gobierno  
de Navarra

EUSKARA  
DENONIA



## Gazteendako zokoa

### Aztoea

*Accipiter Gentilis*

Emea arra baino handiagoa  
Basoetan bizi da  
Erdi Aroan ehizarako erabilia



### Ehiztari trebea

Txikia izanda ere, Europako harrapakaririk sendoena dugu aztoea. Oso trebe eta arina, bere abiadura instant batean alda dezake, eta bereziki zuhaitzen artean aritzen bada ere, noiz edo noiz oihanaren agerrueneren batean ere agertzen da erbi edo koneju bila.

Bere elikagaiak ugariak dira, eta beleak, erroiak, usoak, eperrak, katgorriak, konejuak eta erbiak ditu gustokoena.

Oso tamaina desberdina dute arra eta emeak, eta harrapakarien artean maiz gertatzen denaren antzera, arra dezente txikiagoa da. Arrea oso, bular aldera zolda franko ditu, alde batetik bestera, eta erakargarriak dira begien kolorea eta dituen hatzapar sendoak.

Normalean basoetan bizi dira, pagadi edota harizti gogokoago, eta txofrakiak ere zuhaitzetan paratzen dituzte. Aukeratutakoa urte luzez erabiltzen dute, eta bertan bi eta lau arraultz artean erruten ditu emeak. Txorikumeendako sobera jana ekartzen ez badute, batzutan, kume sendoenek hil eta jan egiten dituzte ahulenak.

Aspaldian, ehizarako erabiliak ziren, gabirarekin egiten zen bezalaxe, baina soilik erbiak, konejuak, usoak eta eperrak harrapatzeko erabiltzen ziren.

### AITOR GASTON

Egun eguzkitsu batean joateko tokia da hau. Errekek eta bideek ebakitzten duten zuhaitz multzo itxian sartzen garenean, kanpoko beroa zelaian sentitzen genuen eguzkiaren presio hori desagertzen da. Bapatean hezetasun pixka bat nabari dugu aurpegian eta eskuetan, argitasun aldaketak begiak lainotzen digu, eta hostoen artetik itzala moztzen duten argi izpiek lilurazko irudia sortzen dute gure begien aurrean.

Badaramatzagu berrogeitamar pauso basoaren barnerantz, eta izadiaren ezaugarri eta ñabardura txikiak arduratzen hasten gara. Une honetan bizitza hasiko balitz bezala txoriek kantatzeari ekiten diote, ibaiaren soinua gure belarrietara heltzen da gero eta ozenagoa, han hemenka mugimendu, jauzi eta hots txikiak agertzen dira, bizitza da.

Bidea zabala da eta ibiltzeko erosoa. Bere alboetan ez da berdetasuna baizik ikusten, udazkena izan arren, kolore arre eta gorrixa pila bat egon arren, orain gutxitzen ari den kolore berde horrek hor dirau. Bidearen alde batean harrizko pareta natural izugarria daukagu, erortzen den uraren hezetasunagatik jaiotako goroldioaren artean igel txikitxo bikoteak, bakarrik ez gaudela gogorazten digu. Igelei begira gaudela, paretaren bukaera antzematen dugu. Harriak puxkatuta eta higatuta daude bidea zeharkatzen duen izadiaren indar handienetarikoa bat dela eta, hots, errekatxo bat.

Erreka ez da inor ikustera gelditzen,

# Egun bat mendian



Urkiola mendia.

ezta bere suntsitzailak garen gizakiok ere, eta malkarraren behera jarraitzen du pago garai eta zuzenen artean.

Bihurgune itxi bati buelta ematekoan erreka nora doan ikus dezakegu. Han, gure azpian, ibai dago, eta bere ondoan lehen alde batera utzi dugun bidea. Ibaiek ur gutxi darama,

lehor samarra izan bait da uda. Hala ere amurrainak ia hemendik ikus ditzakegu, baita arrantzaleei dieten beldurra entzun ere.

Bapatean, gure aurrean, eta mendiaren beste aldetik, ibaiarantz doan erreka uren uretatik edaten abere bat antzematen dugu. Ikusi gaitu, ikus

gaituzte, ez dakite zer egin, ez dira beren koloreek ematen dieten mimetismoaz fido, baina egarriak daude edan gabe ihes egiteko.

Saltoka desagertzen dira, hiltzailak garen gizakienganako beldurra bere egarria baino indartsuagoa bait da. Penagarrai, gu izadiaren suntsitzailak izatea.

Eguzkiak ematen duen bihurgune batean bidearen ondoan belaze txiki batean esertzen gara, hamaitakoa hartzeri eta gertatutakoaz pentsatzera.

Ibiltzen hasten gara berriro. Baso gero eta irekiagoa da, eguzkia gehiago ikusten da, belaze gehiago daude eta aldapa gero eta gogorragoa da. Azkenean mendiaren gailurrera heltzen gara. Ez daude zuhaitzik, belar motza eta gogorra zapaltzen dugu gustora. Inguruko mendi guztietan bezalaxe belardi hauetan behiak eta zaldiak daude, mendi bakoitzean talde bat.

Izadiak ezkatutako gizakiaren gaitz larrieneriko bat adierazten duten txabola militar txikiak ikusten ditugu, hauek, abereak bezala, mendi guztietan. Mugan daude. Zorionez izadia ez da gizakiak ezarritako mugetaz arduratzen.

Lainoaren artean Iruritara doan bidea ikus dezakegu, Iparralderantz, eta urrunago mendiak, edertasuna. Hegoalderantz zokogune batean Arga ibaia izango den erreka antzematen dugu.

Gizakiaren jarrera justifika ezina egiten duen edertasunak leku guztietatik gure begietara jauzi egiten du, sentipen sakon eta liluragarri bat sortuz gure barnean.

### NON ZER

#### Ikastaroak

□ Hurrengo ikasturtean EEBBetan igarotzeko aukera eskaintzen dizu Nafarroako Gobernuaren Hezkuntz Zerbitzuen administrazioak. 15-18 urte bitartekoendako, BBB eta UBI egiteko bertako familien etxeetan. Informazio gehiago nahi izanez gero, ondorengo helbidera jo: David Griffiths, Tfnoa.: 17 37 73

□ IPESek zenbait ikastaro antolatu ditu otsaila honetan hasi eta martxora arte luzatuko direnak. Mota eta gai ezberdinei buruzkoak, Mundua

ikuspundu historikotik, gorputz espresioa, sexualitatea, HIESa, fantasia eta ametsak, eta beste makina gai jorratuko da bertan. Informazioa: 22 59 91 telefonoan. San Miguel, 18. Iruñea.

□ 'Enpresa, Ingurugiroa eta erantzunkizun zibila' izeneko ikastaroa burutzen ari da egunotan Nafarroako Unibertsitate Publikoko Eraikin Zentralean, Zuzenbide Fakultateak antolatuta. Izena emateko hurrengo telefonora deitu, goizeko zortzietatik ordubata bitartean: 25 27 00 (2811 zabalp.)

□ Heldu den apirilaren 30an amaituko da natur zientzia arloan kanpoko unibertsitate eta ikerketa zentruetan ikasketak burutzeko dirulaguntzak eskatzeko epea. IV. deialdia hau biomedikuntza eta kimikari dago bereziki zuzenduta. Informazio gehiago behar izanez gero, hurrengo telefonora hots egin behar: 91/ 563 07 99

#### Lehiaketak

□ Iruñeko Udalak ipuin eta narrazioen lehiaketarako deialdia egin du. Lanak martxoaren 30a baino lehen

aurkeztu behar dira Zapateria kaleko Hiritar Eragintzako bulegoan.

□ Bilboko Rock-Pop Lehiaketarako deialdia egin du bertako udaleko Kultura Zerbitzuak. Lanak taldeek beraiek egindakoak baino ez dira onartuko eta otsailaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira. Halaber, taldeek ezin dute aurretik inolako kontratua egin izan disketearen batekin. Eskerak hurrengo helbidera zuzendu behar dira: Gazte eta Kirol Saila. Bilboko Udala. Erenesto Eskoreta Plaza. 48.007 Bilbo.

### KAZKARROAN

## Oilarra kantari

Egungo oilarrak iratzartzen duenean. Arbizuko bertso eskolan botatakoa

Hau egoera kaxkarra  
Ezin kendurik malkarra  
begi pare ireki nahian  
kristoren indarra  
epe-epela bizkarra  
jeikitze gogo txarra  
zazpirak dituk, ixildu hadi  
behingoan oilarra!

Eztarria ta mingaina  
abilla edi arina  
kale guztia iratzartzeko  
karraka bikaina  
e'iat sinistu nahi baina  
iada hartu zidak gaina  
aizak, hau al duk bart emandako  
pentsun ordaina!

Josema Leiza

Z A K Z I L N A L A E P  
R A O K I N I R O R B E  
G E R K A R A G E U I D  
Z K A A N A P A R I D T  
U R A D I R A T I G A S  
A S I L A T A Ñ K T S A  
I Z O S U M Z E D P O N  
M R E L A U D U H G A O  
R A K Z E R A H A B U T  
A Z T L U B A R R E L I  
B L A R E N A M A H L A  
U R R O B I E R A R A K

## LETRA ZOPA

Aurki itzazu letra zopa honetan Nafarroako ibai ezagunen izenak. Ibaion izenak ezker eskuin, eskuin esker, goitik behera, behetik gora eta diagonalean irakurrita agertuko zaizkizu.

## Zaharrak berri

Gero dionak, bego dio.  
«Gero ordainduko» dionak, inoiz ez du ordaintzen, askotan.

Ultzama

Kara kara elea franko, eta gibeletik aztalak jan.  
Aurpegiz aurpegi hitz ederrak, baina atzetik azpiak jaten.

Mezkiritz

Bi gizon txiki tabernan sartzen dira eta:  
—Bi txikito.  
Tabernariak:  
—Bai, ikusten dut, baina zer hartu behar duzue?



## Bizi Bizian

Arturo Kanpion Iruñeko euskaltegiak hogeitau urte bete ditu aurten, eta hori dela eta, egitarau zabala prestatu du behar bezala ospatzeko. 1971an sortuta, euskalduntze-

ko lehendabiziko ahaleginen inguruan, gaur egun proiektu sendoa da Jarauta kalean hasi zen zentrua. IKA (Ikas eta Ari) erakundearen arima eta sortzailetakoa, be-

re gelatik pasatako izen ospetsu guztiek ematen dien tradizioarekin, Nafarroako euskalduntzearen munduan erreferentzizko gune ezinbestekoa da euskaltegia.

# Euskalduntzearen bide luzea

IZASKUN IBARRA / IRUNEA

Euskaltegi honen historia 1971ko urtea aurretik hasi zen, han-hemen zenbait talderekin, hain zuzen ere Gipuzkoa eta Bizkaian ere euskara irakasteko lehenengo taldeak osatu zirenean. Hasierako une haietan euskaldun zaharrek alfabetatzea zuten helburu eta Iruñean talde txiki batzuk hasi ziren elkartzeko Magisteritza eskolan eta beste zenbait lekutan.

Beste probintzietan sortutako esperientziak ere baliatu zen Arturo Kanpion ikastaro horiek antolatzeke orduan, 1982. urteaz geroztik zuzen-

Proposatutako izen hau zenbaitzuk ez zuten egokitzat hartu, Arturo Kanpion euskara ikasi zuen idazle nafarra oso baztertua egon bait zen bere garaian. Batzuek probokazioztat har zezaketela izen hori jartzea, garai hartan euskarak bizi zuen egoera zela eta, baina hala ere, izena onetsi egin zuten eta Biana Printzea erakundeak, nahiz eta beraiek eratu ez izan, nolabaiteko babes eman zion proiektuari.

Euskaltegia sendotuz joan zen neurrian lokalak alokatzen hasi ziren. Lehenengoa Jarauta kalekoa izan zen, baina berehala ikasleez gainezka egonik, etxea eta pisu gehiago alokatu behar izan zituzten. Hasierako pausak gogorak izan zirela gogoratzen du Sagrario Alemanek. «Irakasleek beste lan batzuk izaten zituzten eta ilunabarrean etortzen ziren euskarazko klaseak ematera. Dirurik ez genuen eta materiala ere nahiko makala zen» dio zuzendariak.

Hala ere, Arturo Kanpion euskararen munduarekin zerikusia zuen edozein gauzatarako kontutan hartzeko eredu bihurtu zen. «Kantari bat kontratatu nahi zela, hala helbideren bat behar zela, hona deitzen zuten».

Metodologia aldetik ere aldaketak izan dira. Hasieran 'Euskara hire laguna' liburua erabiltzen zuten, baina egun metodo hori oso urrun geratu da. Egun jendea lehendabiziko egunetatik gehiago hitzegiten hasi da eta ez da garai bateko euskara bezain artifiziala. «Pertsona normalen artean hitzegiten ari garela konturatu gara».

Materiala ere Arturo Kanpionen bertan sortzen dute, bereziki beheko urratsetakoa. Sagrario Alemanen esanetan «horrek nolabaiteko hurbiltasuna ematen dio metodoari, gehienetan Iruñean gertatutakoak agertzen bait dira. Horrek aukera handiago ematen du ikasleak hori bizitzeko. Bestalde irakasleek orain



Nafarroako euskaltegiak zaharrena da Arturo Kanpion.

egun osoa horretan ematen dute. Hamahiru lagun klaseak ematera deditakuzen dira erabat.

Hogeigarren urteurrena dela eta, mintzaldi eta kontzertuez gain, B urratsetako ikasleentzat kasetak bat kaleratu dute «klasean ikasitakoa etxera ailegatzen diren finkatu ahal izateko». Ikasturte honetan beste bi kasetak plazaratzeko helburua dute Arturo Kanpionekoek.

Halaber Arturo Kanpion idazlearen 'Erraundoko azken ttuntuneroa' ipuinaren oinarritutako komiki bat dagoeneko inprimategira eramateko prest daukate, eta ikasturte honetan ere beste bi argitaratzeko asmoa dute euskaltegiokoek.

ipuinaren oinarritutako komiki bat dagoeneko inprimategira eramateko prest daukate eta ikasturte honetan ere beste bi argitaratzeko asmoa dute euskaltegiokoek.

**A**rturo Kanpion idazlearen 'Erraundoko azken ttuntuneroa' ipuinaren oinarritutako komiki dagoeneko inprimategira eramateko prest daukate, eta ikasturte honetan ere beste bi argitaratzeko asmoa dute euskaltegiokoek.

«Zer eman? Garai batean euskaldunen gune gisa Zaldiko Maldiko elkarteak sortu genuen, baina hori ez da erantzunik egokiena, Iruñean aukera

gutxi dute hitzegiteko. Kezka horiek oraindik hor segitzen dute nahiz eta gaur egun euskara gehiago entzun hirian».

Arturo Kanpioneko euskaltegi zuzendariaren ustez aldaketak nabariak dira hala ere. «Egun tabernari askok adibidez, nahiz eta euskara ez menperatu, esaldi batzuk badakite. Hor daude ere Euskalerra Irratia, EGUNKARIA, ETB, Euskadi Irratia. Euskara gehiago entzuten da hiri giroan, oraindik ordea, ez dago normalizatuta, hizkuntza nagusia gaztelania bait da».

Ikasle batzuk euskaltegi itzuli egiten omen dira urte batzuk barru ikasi duten euskara ez galtzearen. Talde berezi batzuk ateratzen ere saiatu omen dira, baina kopuru txikia da oraindik.



Sagrario Aleman. JOXE

daria den Sagrario Alemanek azaldu duenez. «Garai hartan bazegoen zenbait euskaltzale, ikasleetatik ateratakoak eta beste, euskalduntzeari nolabaiteko seriotasuna eman ziotenak, eta hortik ateratakoekin hasi zen Iruñean hamabi laguneko osaturiko talde bat. Beste loturarik ez zegoen haiekin. Gero pentsatu genuen euskaltegi bat ireki behar zela, eta Euskal Herriaren klase antolatutako ematen zuten lehendabizitakoak izan zen».

Pixkanaka pixkanaka klaseak antolatzen hasi ziren eta Arturo Kanpion izena eman zioten euskaltegiari.

## Bertsoak, musika, balleta eta mintzaldiak urteurrena ospatzeko

I. / IRUNEA

Euskalduntze lanetan daramatzan hogeitau urteak ospatzeko, ekaina arte iraungo duten zenbait ekitaldi antolatu ditu Arturo Kanpionek. pasa den astean hasi ziren, hain zuzen ere, Zaldiko Maldikon egin zen 'Kultura herrietan' izeneko mahainguruarekin. Otsailaren 21ean Xabier Kintanaren Georgiako Kulturaz eta Euskal Herriarekiko kideetasunaz hitzegingo du, eta martxoan gazte mugimen-

duen egoera aztertzeke asmoz mahainguru antolatu dute.

Kantaldiek ere beren tokia izanen dute eta martxoaren 3an bertso saioa izanen da emakume gazteen eskutik. Ondoren, Napolitanak abesten dituen talde italiar bat, Sakanako Ortzi folk taldea, Izugarri jazz emanaldia eta Patagonia taldearen saioak ere entzun ahal izanen dira.

Maiatzaren 22an Iparraldeko Mizel Theretek zuzentzen duen balletak 'Zumezko eskua' izeneko emanaldia

eskainiko du. Pilotan oinarritutako ikuskari honek arrakasta handia lortu zuen Iparraldean estreinatu zenean.

Festa nagusia maiatzaren 23an egingen da, urte hauetan euskaltegi ibili diren guztientzako bazkari bat prestatu behar bait dute. «Lehenengo aldia izanen da Arturo Kanpionen ikasten edo irakasten aritutakoak elkartuko gara» dio Sagrario Alemanek. Bazkalaurretik giroa berotzen laguntzeko bertso saioa eskainiko dute Iruñeko Gaztelu Plazan.



Lesakako Matxinbeltzenea. JOXE



Euskaltegia Comedias kalean. JOXE



## Idoia Lazkoz .....txirrindularia

# «Maila jatorra dugu Olinpiadetarako»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

**EGUNKARIA.**— Palma de Mallorcan Olinpiadetarako aurre selekzioan zabilta orain. Nola jakin zenuen aukeratu behar zintuztela?

**IDOIA LAZKOZ.**— Nik ez nekien ezer, orain arte selekzio jubeniletan aritu izan naiz, eta beraiekin joan nintzen Salou-ra, beste konzentrazio batera. Hara deitu zidaten selekziotik eta lau egunen buruan Palma de Mallorcan egon behar nuela esan zidaten. Eta holaxe izan zen, egun batetik bestera dena.

**EGUNKARIA.**— Eta ze moduzko entrenamendua egiten duzue orain, aldaketarik somatu duzu?

**LAZKOZ.**— Bai, jakina. Oso fuertekak dira, ia sei ordukoak eguneroko. Txirrindularia, gimnasioa, igeriketa, denetatik egiten dugu eta horrelakoak orain arte ez ditugu sekulan egin. Hemen ohituta gaude entrenamendu lasai batera, baina errusiar bat etorri da gu entrenatzera eta berarendako entrenamendua ia sakratua da. Oso entrenamendu gogorrak egiten ditugu.

**EGUNKARIA.**— Zer moduzko giroa duzue zuen artean?

**LAZKOZ.**— Oso oso ona, harrituta gelditu naiz, lehengo urtean arazoak izan bait ziren entrenatzaile eta nesken artean. Horregatik, beldurra nuen, ea zer gertatzen zen, baina aurten oso pozik gaude. Entrenatzaileekin eta nesken artean primeran konpontzen gara. Gainera, lau euskaldun gara, hiru giputzi eta ni, eta egun osoz aritzen gara marra-marra.

**EGUNKARIA.**— Olinpiadei begira zer frogara zara prestatzen bereziki?

**LAZKOZ.**— Aurten errepidean aritu

gara batez ere, baina oraingo gure entrenatzailea pistakoa ere bada, eta esan digu bietan —pista eta errepideakoa— parte hartuko dugula. Pista, dudarik gabe, zailagoa da, dauden denborak jaitsi egin behar ditugulako, eta hori oso zaila delako. Gainera gure prestakuntza beti izan da gehiago errepideakoa. Nere kasuan, baina, aukera handiagoak dauzkat pistatan, nere gorputza dela eta. Igoerak, adibidez, oso gaizki pasatzen ditut, eta hiru kilometroko proban arituko naiz. Hau da, egun batean errepideakoa, larogei kilometro, eta lau egun beraduego, pistatan.

**G**utako bat kalean zen gelditzekoa, baina presidentek proposamena egin zigun, batendako zegoen dirua bion artean banatzeko. Elkarrekin hitz egiten genuen, eta baietz erantzun genion, gurendako inportanteena Olinpiadetarara joatea zelako

**EGUNKARIA.**— Orduan, dagoeneko Olinpiadetarako selekzioan zaude.

**LAZKOZ.**— Bai, bai, dagoeneko kontratua eta guzti egin digute.

Hasieran sei neska joan ginen, eta horietariko bat kalean gelditzekoa zen, baina presidentearrekin hitz egin genuen, eta proposamen bat egin zigun. Bi sartu berriak ginen, eta esan zigun, nahi izanez gero, batendako zegoen dirua bion artean banatzea. Biek hitz egin genuen elkarrekin, eta ados jarri ginen, eta biak geldituko gara. Diruak, azkenean, ez dauka aparteko garrantziarik, selekzioan sartzen ginen lehendabiziko urte honetan Olinpiadetarara joatea bait zen gure helburua.

**EGUNKARIA.**— Pistetan aritzera koan, teknikak izango du berebiziko garrantzia.

**LAZKOZ.**— Bai, eta hori suertea izugarria izan dugu entrenatzaile berriarekin, oso denbora laburrean gauza pila bat erakutsi bait digu, detaile txikiak, baina oso garrantzitsuak. Asko daki. Guk hasieran ez genion

**E**txarri-Aranatzetik Iruñerako bidea txirrindulaz —nola bestela!— egin zuen elkarriketaren egunean, eta bere gurasoek bertan duten tabernaren sukaldean aritu ginen hizketan, lasai, lasai, txirrindularen ondoan. Idoia Lazkoz

zortzi urtekin hasi zen txirrindulaz, anaia imitatzearen edo, eta hamar urte berandua go heldu zaio entrenamendu eta arratsaldeguztien saria: Olinpiadetarako selekzioa sartu dufe, horretarako deitzen duten lehen dabiliko aldia izanda ere.



Idoia Lazkoz.

hainbeste garrantzia ematen teknikari, baina errusiar honekin ikusi dugu teknika ia inportanteena dela txirrindulari gainean.

**EGUNKARIA.**— Pistan aritzea errepidean baino aspergarriagoa dela ematen du, beti bakarrik, zu eta txirrindularia.

**LAZKOZ.**— Bai, korritzeko orduan, politagoa da errepideakoa, pistetan detaile txiki bategatik hankaz gora bota dezakezulako egindako lan

guztia. Baina, pistan gorputz mota bat behar da, eta horretarako egokia da nerea. Hala ere, ni ohituta nago eta gustoa hartu diot.

**EGUNKARIA.**— Zortzi urtekin hasi zinen txirrindularitzan. Nola bururatu zitzaizun?

**LAZKOZ.**— Etxean beti izan da giroa, osabak ere txirrindulaz aritzen zuelako. Ondoren, anaia hasi zen, lagunekin, eta nik txirrindulari ere hartu nuen, besterik gabe. Hasieran ez ne-

kien ezta ea gustatzen zitzaidan ere. Eta horrela, hamar urte txirrindulari gainean. Hasieran mutilekin hasi nintzen, eta duela lau urte neskekin. Euskadiko txapelketak hasi zituzten antolatzen, eta baita lasterketak ere. Hortik selekzioa, eta Espainia oso zehar korritzen hasi ginen. Orain duela bi urte Ingalaterrara joan nintzen mundialetara, eta neretzako esperientzia ederra izan zen, kanporatu ginen hasi bait ginen, jende onarekin eta. Iaz ere Estatu Batuetara joan ginen mundialetara.

**EGUNKARIA.**— Eta mutilekin konpartitzen zenuen garai hartatik nolako gogoa dituzu?

**LAZKOZ.**— Neretzako oso urte polikiak izan ziren, oso jatorrak. Gira aparta zegoen, eta entrenatzaileak ere txiki txikitatik eraman ninduen. Urte ederrak izan ziren.

**EGUNKARIA.**— Hasieran bazegoen horrelako erreparoa neskek txirrindularitzan sartzeko. Gauzak aldatu direla uste duzu?

**LAZKOZ.**— Bai, dudarik gabe, nesken mundua asko aldatu da. Lehengo zegoen neskarik, baina gero, Euskadiko txapelketak egiten hasi zirenean, neska gehiago atera ziren, eta horrelako ilusioarekin eta selekzioarekin, maila asko igo da.

**EGUNKARIA.**— Eta zeintzu diraz moak Olinpiadetarako, parte hartze bakarrik, edo zerbait gehiago?

**LAZKOZ.**— Gure entrenatzaileak behintzat, oso asmo handiak ditu, eta goi goian egoteaz hitz egiten digute behin eta berriro. Gainera psikologoak eta guzti ditugu eta burua oso ongi prestatzen ari gara.

**EGUNKARIA.**— Entrenatzaileak asmo handiak, eta zuek?

**LAZKOZ.**— Guk konfidantza handi dugu berarekin, asko kontrolatzen bait du gaia. Zaila ikusten dugu, baina egiten ditugun denborak ikusgarriak izango dela uste dugu, maila bastante jatorra daukagulako. Ilusio behintzat badaukagu.

### NOSKI JATOR

### ZVLDI ERO

